



DONEKUNTZA-BIDEA

Baña besterik ez, etxe andi-txukunik eta ezelan bez. Ezpei Jaunak olakorik laketu. Epai-egunean danak luñera etofí beańak dirala gogora ekańi; ta ez ete da laster izango gero? Ta amairu lekaimetxoen etxeak jaustean astrapalada andia egiteak eztirudi ondo; benetako txiroak eztabe otsik egin bear ińozko efukirik izango badautse. Gero, bańiz, zuei ukańen bat egin dautsuela-ta bat-edo-bat gaiztokira barik gelditu dala jakitea, a izango pozgańia! Ezta gero au jazo ezin leikeana be, jaten emoten dautzuen ezkerro, euren alde sańi otoi egitera beartuak zagoze-ta. Bai, ukar ofeik Jaunak emonak ixan ańen, beste onein eskuen bitartez damoskuz-ta, onein alderako be esker-onekoak izatea Jaunak berak gura dau-ta. Ez onetzaz ińoz aiztu.

Baña aritik urtenda nago; zer esaten asi nazan be eztakit. Jaungoikoak alan nai izan dau uńean, ińoz be eztot emen esan dodanik idazteko asmorik izan-eta. Jaunak berak emongo al dausku emen esaniko dana zeatz betetako indańa. Alantxe.

III'GAREN ATZALBURUA

Lenengoan esanaren jańaipena.—Lekaimeak Eleizearen alde lanean diarduenen alde otoi egin bear dabe.—Azkenean ańen bat dakar.

Arira gatozala, Jaunak emen gu batzean izan dauan asmoa beteteańen, berari poz eta atsegin apur bat emoteko alegińak egitea da nik ain biziropu neukeana,

Oñetarako, ainbeste gaiztakeri dakusgunezkero, luter-tar onein sua itzaltzeko biderik luñekook asmau ezin dogunezkero, era bat otu yat. Gudatean Jaun bati etsayak bere luñalde guztia artu ta estuan ipinten dabenean, jaun oñek zer egiten dau? Gaztelu baten bere guda-gizon oñeik gaztelutik urtenda etsayai esesten dautse, ta izan be aukerakoenak dira-ta, beste gudari epel askok baño euren euretara geyago al izaten dabe, ta sañi olantxe garaitza lortzen dabe; ta garai urten ezañen be, eztabez beintzat menderatzen; azpi-saltzailerik euren artean ezpadabe, gosez izan ezik eztabez aspiratuko. Emen ezta gose oñen bilduñik; ez gaitu goseak etsayen mendera ekañiko; il bai, baña menderatu ez.

Baña zertarako aituta dot au? Ene aitzak, egin bear dozuena zeuri azaltzeañen. Oindiño gaztelu bat ba-da, kistar on batzuk bertan dagozana; gaztelu oñetako nagusi edo buruzagiak izlari ta urtziztilariak (teologoak) dira. Ba, gaztelu oñetako kistar bat be etsayen aldera eztoakigun Jaunari otoi egitea, bertako buruzagi diralako oñeik Jaunaren bideetan azkartu daitezcan, eta geyenak lekaide diran ezkerro, beañena dabe-ta, lekaide-bizierari dagokiozan bearkunak betetan zintzo izan eta auñera doyan Jaunari eskatzea, oña guk egin bear doguna. Orain eztoqu mundu-gizonen beañik eleiz-gizonena baño; ta gure Eñegeri beste ezertan laguntzeko gauza ez gareanezkero, sayatu gaitezcan beinik-bein jakituriz eta onoimenez euren gogoak sendotuta gero aren alde ain azkar jokatu bear daben Jaunaren otsein zintzo oneri geure biziera onaz eta otoyakaz laguntzen.

Baña ausaz esango daustazue: zer dirauskuzu? gu baño obeak diranen alde otoi egin bear ete dogu? Esango dautzuet, Jaunari dautsazuen zoña eztozuela oindiño ondo ulertu deritzat-eta. ¡Jaunak etxe onetara ekartean egin dautzuen eskaña! Emen munduko galbiderik eta

ausimausirik barik zagoze. Areik, ostera, eztabe olango zorionik, eta eztabe izan bear be; batez be aldi oneitan epelak berotu ta biotz-ĭlak adoretzeko bear-beaĭekoak dira-ta. ĩOnak legokez gudariak buruzagirik barik! Areik gizonakaz jardun eta bizi bear dabe, ta jau-regietara sartu ta iduriz euren erara etoĭi be bai saĭi. Ba, ene aizatxoak, munduan bizi ta munduagaz jardun, munduko gora-beratan sartu ta, esan dodanez, munduko goraberatan sartu ta, esan dodanez munduzaleen erara saĭi etoĭi bear-ta, alan da gusti be, biotzez munduzaleen erara saĭi etoĭi bear-ta, alan da gusti be, biotzez munduzale ez izatea, munduaren arerio izatea ta bertan erbestean lez egotea, itz batez esateko, gizon barik aingeru izatea, gauza eĭaza dala uste dozue? Ta olangoak ez izatekotan, eztagokie buruzagi-izenik, eta ez al dautse Jaungoikoak euren geletatik bein be urtetan itxiko, onik baĭo kalterik geyago egin dabe-ta.

Ezta oraingo aldia irakasle ta zuzendari izan bear dabenetan bear eztan gauzarik ikustekoa. Eta amaitu-beaĭak diran gauza guztiak zapalduta biotza areikandik aldendu ta betikoetara zuzentzeko baĭutik, azkar ta sendo ezpadagoz, ezagun izango dira, alan irudi ez izateko alegiĭnak egiĭnaĭen. ĩEz al dabe mundua salatari? Nor ta mundua! Ez uste akatsik be oartu barik geldituko jakonik. Gauza onik asko, bai, ez-ikusi egingo dabez, edo aintzat be eztabez artuko; baĭa txarĭk edo bear bezelakoa eztanik, ezelan be ez. Aĭiturik nauko oĭaitiĭo. ĩNork erakusten ete dautsez deuntasun-legeak? Eta eztabez eurak beteko, ez; oĭetarako bear-kunik bape eztabelakoan dagozala dirudi; aginduak alan olan betetea naikotzat dabe. Besteak gaiztetsi edo mai-seatu baĭo eztabe egiten; ta saĭi ondo egiĭna be txartzat emon. Oĭa ba; ez uste guda-leku oĭetan sartzeko gure gizonok Jaungoikoaren laguntzaren bear andia be andia eztabenik.

(Jaĭaitzeko).

IGOTZ OBA